



DANI BLANCO

Iñaki Murua

BERTSOLARIA ♦

Inurriak eta euli handiak!

LANGILE NEKAEZINIK ez dagoela esango nuke nik baina, inurriengatik zenbait bertsoak eta kantak ere hala dio. Nekaezina, ordea, nola liteke? Edo dioen adina lan ez du egiten edo markatik kanpoko da. *Extra* esaten zaion horietakoa. Halere, nik uste, bakoitzak motxilan daramagun zamak baino gehiago nekatzen gaituela, ustez zuzen ari eta zaplaztekoa jasotzeak; neke psikologikoak. Ulertezin zaigunak!

Gure gizartean bi motatako langileak gaudela esan-

go nuke –gehiago ere egon litezke baina, batzuei ez dakit zuzena den langile deitzea; besteei buruz hitz egiteko ezagutza nahiz tarte urria daukat–, batzuk ari direnik ere nabaritzen ez dugun horiek, baina etengabe jardunean bizi direnak eta, bestetzuk, haiek bezain langileak baina denok ikusteko eran ari direnak; hauen lana nabarmen geratzen da eta egileak ere bai.

Egoera normalean, elkar elikatzen dute bi langile mota hauek baina argi izan behar dute beharrezkoa dela elkarrekiko enpatia eta osagarri izaera hori edo proiektuak porroterako bidea har dezakeela. Esaterako, euli handiak inurrien bidean edo inurritegi gainean lur hartzen badu, hauen patxada edo ibilia oztopatzeaz gain, nola lurreratzean hala aireratzean sortzen duen ziri(n)molak, ibilbidea eta zamak ez ezik inurriak eta inurritegia ere hankaz gora bota ditzake,

hauengan sortzen duen haserreak, euli handiaren lan nabarmen eta ikusgarria desitxuratzen duelarik.

Ezinegona eta dezeptzioa, berriz, gerta daiteke inurriek euli handiari bere eltxarrak sor ditzan, arrautzak non jarri adostu eta lantzen dioten gunea albora utzi eta bere nahierara jarduten duenean. Batik bat, bi aldeetakoek uste dutenean arrautza horiek erruteko habiarik hoberena bakoitzak dioena dela, benetan gertatzen dena honako hau denean: bi habiak elkar-

rren osagarri (eta beharrezko!) direla, otordurako mahaia ezinbesteko gai guztiakin hornitu nahi badugu.

Berez, ikuspegirik osoena, hegan, goitiko bista ezagutuz bizi den euli handiarena da. Hark du argazki osoa egiteko aukerarik hoberena, nire ustez, baina horrek ez du esan nahi beti asmatzen duenik edo inurriek ere errealitatearen argazkirik ez dutenik. Inurri hegalariai ere badirela kontuan izanik, noski!

Sentiberatasun handiz jokatzeko esaten ari zaigu sena; hau eskatzen, bereziki: zain dezagula elkar, nola aktiboki eragin/eragiten dugunak hala egoera saiheatsagotik bizitzen ari/aritu direnak, guztion borondate onean sinetsiz, zubiak eraikitze gogogaitasuna oinarri, balizko porrota irakaspén bihurtzeko. ■

Egoera normalean, elkar elikatzen dute bi langile mota hauek baina argi izan behar dute beharrezkoa dela elkarrekiko enpatia eta osagarri izaera hori edo proiektuak porroterako bidea har dezakeela



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Lampedusa

HALTZAK ez dü bibotzik ez gaztaberak bezürrik... Lampedusako uretan ito diren etorkinetako inork ez zuen abestuko *Supplique pour être enterré sur une plage de Sète*, haiek beste hizkuntza bat izango zuten, beste kantari batzuk, baina Brassens zenaren desioa haiek konplutuko dute, gure hondartzetan ehortziko ditugu, zientoka hezur eta bihotz.

Batuetan pentsamendu gordin bat etortzen zait, zorionekoak ito berriok, gure malkoen ertzeraino iritsi baitzarete azken arnasa ematera, gure begien bistan hil zarete, ez hango lur mutu eta gorraren gainera erori, goseak ala gaitzak edo gerlak

kolpaturik, beste hainbeste bezala, azken auhena entzunarazteko beste hurbildu zarete gugana, eta lur agor haietatik jendeak ihes egiten segitzen duela gogorarazi diguzue, guk horren zergatiaz pentsa dezagun istant batez bederen. Eta ez hainbeste integrazioaz.

Lampedusako kostaldera itsasoak odolaren mintzoa dakar, eta Xalbadorrek bere liburuan injustizia makabro horri hitz xuxenak jarri zizkion: "...kolorrez beltzak izana gatik, heiek ere ama banak, bertzek bezala sofriturikan, mundu huntarat emanak". ■

